

Eskolako Agenda 21

Azpeitiko "Eskolako Agenda 21"



Eskolako Agenda 21

azken txostena

Tolosa, 2004ko uztaila

SARRERA

ESKOLAKO AGENDA 21, ikastetxeak garapen jasangarrirantz jotzeko lan-tresna oso baliagarria gerta daiteke. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-komunitateko agente guztiak prozesu horretan inplikatzeko eta udal administrazioekin elkarlan jarraia burutzea. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek, konpromiso sendoa hartua dute eta mantentzen dute garapen jasangarriarekin lotutako programen zabalkundea eta aplikazioa bultzatzeko, bai material ezberdinen prestaketan, bai dirulaguntzen banaketaren bidez eta baita aholkularitza eta jarraipenean ere. Udal mailan hasitako bidea asko aberastu daiteke orain ikastetxeetan indartu nahi den programa honekin.

Azpeitiak eta Azkoitiak hasieratik egin zuten Tokiko Agenda 21aren prozesuaren aldeko apustua eta Eskolako Agenda 21aren aplikazioan ere aitzindariak izan dira. Dagoeneko abian jarri da prozesua eta Azkoitiko LH-ko bi ikastetxe eta Azpeitiko beste bi hasi dira gaia lantzen. Ikasturte honetan **Energiaren** gaia lantzea aukeratu da.

Prozesu osoan zehar erabili den metodologia Eskolako Agenda 21ak dituen oinarritzko hiru osagaiak kontuan izatea garrantzitsua da. Hala nola:

- Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren kudeaketa jasangarria
- Curriculumaren berrikuntza
- Komunitatearen parte-hartzea

“ARTELATZ Ingurugiro Zerbitzuak kooperatiba”k prozesu honetako hirugarren atala, hau da, **komunitatearen parte-hartzearen garapena** landu du, zeregin hauetan gogotsu eta ilusio handiz parte hartu duelarik.



METODOLOGIA ETA HELBURU OROKORRAK

Erabili den metodologia aurkezteko, lehenik Eskolako Agenda 21ak dituen helburuen artean ondokoak aipatu nahiko genituzke:

- **Tokiko Agenda 21ean parte hartu** eta gizarte- eta lurralde-ingurunean integratzea.
- Ikastetxeko eta ingurunekeo gizarteari eta ingurumenari dagozkien gaiak identifikatu, aztertu eta alternatibak proposatzea, **foroetan ezagutaraztea** eta ingurunearen erabilera jasangarria lortzeko prozesuak abiaraztea.
- Ikasleak bere ikastetxeko eta beren ingurumenaren kalitatean eragina duten kontuetan **parte hartu, lagundu, erabakiak hartu eta inplikatzeko** ohitzea.

Helburu hauekin bat eginik, aukeratu den metodologian **ikasleen parte hartzeari lehentasuna** eman zaio. Eskaini diren tresnak, aurretik ikastetxean programaturiko ekintzak, buruturiko azterketak, lortutako emaitzak eta hobekuntza proposamenak kaleratzea erraztu duelakoan gaude. Tresna hauek ere, ikastetxean egindako lana kaleratzeko euskarri baliagarriak izan dira.

Komunikazio prozesurako bultzatutako tresnak:

- **Udal Foroa:** herriko arazoetan inplikatur, hobekuntza proposamenak aldarrikatzeko
- **Buletina:** gurasoei zein herritarrei informazioa banatzeko

Azkoitiko eta Azpeitiko Eskolako Agenda 21en parte hartu duten lau **ikastetxeen arteko koordinazioa** mantentzea ere oso garrantzitsua izan da eta prozesu osoan zehar beraien arteko **adostasuna** izatea bultzatzen saiatu gara.



UDAL-FOROA

Helburuak:

- Ikasleak, komunitate bateko partaide sentiaraztea eta tokiko administrazioarekin harremanak bultzatzea, Tokiko Agenda 21ean aktiboki parte hartuz.
- Ikasleek energia gai nagusitzat hartuta, herriko ingurumen eta giza-diagnostikoak burutzea, hobekuntza-proposamenak egiten ohitzea eta udaletxean hauek aldarrikatzea.
- Talde-lana eta elkarlana bultzatzea.

Edukia:

Bi foro gauzatu dira: bat Azkoitin bestea Azpeitin. Lehenengoan Udalbatzaren aurrean eta bigarrenean alkatearen aurrean. Aldarrikapenak hauexek izan dira:

Azkoiti:

ETXE MAILAKO PROPOSAMENAK

- Argiztapen naturala erabili.
- Berogailua piztuta dagoenean leihoak ez ireki.
- Geletatik ateratakoan argiak itzali.
- Telebista zeharo itzali.
- Gauza bera ikusi behar badugu telebista bakarra piztu.
- Hortzak garbitzerakoan txorrota itxita eduki.
- Bero egiten duenean aire egokitua piztu beharrean leihoak ireki.
- Bainatu beharrean dutxatu.
- Erabili behar ez ditugun tresnak itzali.
- Arropa eta ontzi garbigailuak martxan jarri aurretik ondo bete.
- Elektragailu berri bat erosterakoan kontsumo baxuko artean aukeratu.
- Hondakinak sailkatu birziklatzeko.

ESKOLA MAILAKO PROPOSAMENAK

- Berogailua behar denean bakarrik piztu.
- Leihoetan argiari pasatzen uzten dioten oihalak jarri.
- Kontsumo txikiko bonbilak erabili.
- Eguzki panelak jarri.
- Piladun tresna gutxi erabili.
- Hondakinak sailkatzeko erraztasunak eman.

HERRI MAILAKO PROPOSAMENAK

- Urruti bizi diren ikasleentzat autobusa jarri.
- Zentral hidroeletrikorik balego berriro martxan jarri.
- Kontsumo txikiko bonbilak erabili.
- Bidegorriak eta bizikletentzat aparkalekuak jarri.
- Garraio publikoa bultzatu: geltoki gehiago jarri, autobus gehiago jarri.
- Ikastetxeko sarreran zebrabidea jarri.

- Espaloi zabalagoak egin eta maldatxoak jarri igo eta jaitsi egiteko.
- Ahal den bidegurutzetan errotondak jartzea.
- Aparkatu ezin den lekuetan araua errespetatu arazi.
- Kanpaina bereziak egitea kontsumo baxuko tresna eta bonbilei buruz.
- Kanpaina bereziak egitea energi berriztagarriei

Azpeiti:

- Herrian, energia berriztagarriei buruz informazioa zabaldu. Horretarako era desberdinak egon daitezke: etxeetara informazioa bidaliz (forman, koloren, itxuran... erakargarri den foileto baten bidez), egunkarien edo aldizkariet bidez (Uztarria, Hitza...), Kaito telebista erabiliz, hitzaldiak antolatuz, kartelak ipiniz...
- Eraikuntza publikoetan energia berriztagarrien erabilpena zabaltzea (ikastetxeetan, kiroldegian, futbol zelaian, Goenan, igerilekuan...). Betherrameko eguzki plaka fotovoltaiakoek martxan jartzea.
- Herritarren artean kontsumo baxuko bonbilen abantailak ezagutarazi eta hauen erabilpena herriko instalakuntzetan, kalean, gabonetan... erabili.
- Garraio publikoa bultzatu. Jendeari autoa gutxiago erabiltzeko erraztasuna eman, adibidez lantokietara autobusak antolatuz.
- Bide gorriak bultzatu.
- Institutoko eraikina bota baino lehen, bertako zuhaitzak ez moztea aurretik mantentzeko aukera aztertu gabe.
- Herriko instalakuntzetan energetikoki eraginkorrak diren tresnak erabili eta herritarren artean hauen abantailak ezagutarazi.
- Herriko denden erakusleihen argiztapena arautu, nolabaiteko aholku edo kontrolen bidez.
- Gabonetako argiztapena beranduago piztea; goizeegi jartzen da eta batzuetan egunez ere piztuta izaten da.
- Kaleko argiztapena beranduago piztea.
- Herrian energi alternatiboaz arduratzen den norbait izatea, adibidez, konponketak lehen bait lehen egiteaz arduratzeko, berrikuntzak aurrera eramateko...
- Eraikuntza berrietan zuhaitzak eta landareak jartzea.

Prozedura:

Bilera baten bidez, ikastetxeei foroa burutzeko jarraitu beharreko prozedura eta informazio guztia eman zitzaien eta foro honi begira, ikastetxe bakoitzean antzemandako arazoan azterketa antolatu. Herri bakoitzean, bi ikastetxeen arteko koordinazioa bermatu dugu bileren bidez.

Hurrengo bilera batean azkerketen emaitzak jaso, fororako ikastetxe bakoitzeko ikasle-ordezkaritza izendatu eta parte-hartzeko modua azaldu eta aldarrikapenak landu dugu. Hurrengo pausua, Udalean ikasleek utzi beharreko txosten idatzia prestatu zen.

Prozesu honen funtzesko xedea, Udal bakoitzak Foroan luzatutako aldarrikapenei aurre egitea eta erantzutea da, bai gauzatuko direnak eta bai egingo ez direnak zergatiak azalduz.

Artelatzeko partaide baten esku geratu zen Foroaren moderatze lana.

BULETINA

Helburuak:

- Gurasoak, ikasleek egindako lanaren xehetasunak ezagutzea.
- Ikastalde bakoitzak, beste ikastetxeetakoek egindakoaren berri izatea.
- Idatziak eta argazkiak erabiliz euskarri erakargarri bat sortzea.


Edukia:

Buletinak aldizkari itxura eman zaie eta 8 orrialdetan zehar hizkuntz bakarrean, lau ikastetxeetan aurrera jarraitu den prozesuari buruzko informazio guztia azaldu da. Bertan, Azkoitiko eta Azpeitiko Eskolako Agenda 21aren aurkezpena (helburuak, partaideak...), Udal foroa eta ikastetxe bakoitzak burututako ekintza plana adierazten da, prozesuan zehar ateratako argazkiak eta ikasleek sortutako materialen irudiak informazioaren lagungarri izanik, (Ikus Eranskinak).

Prozedura:

Ikastetxe bakoitzean, Eskolako Agenda 21eko arduradunarekin bilera batean, beraien ekintza zehatzen informazioa jaso genuen. Ekintza hauen tenporalizazioa ezagutuz, jardueren arabera, argazki desberdinak aterako genituzke.

Hurrengo urratsa, lortutako informazio eta material guztiarekin buletinaren behin behineko aurkibidea egituratzea izan da, buletinaren lehen bozetoa diseinatuz. Bertan ikasleen parte hartzea ahalik eta handiena gertatzearen apustua egitea beharrezkoa da (adibidez, Udal Foroaren berri emateko atalean).



Lehen bozetoa ikastetxeetako partaideen esku utzi ondoren, beste bilera orokor batean moldapenak eta ekarpenak jaso ziren, azken zuzenketak egin eta buletina inprentara bidaltzeko. Herri bkoitzeko postontzi guztietan uzteko erabakia hartu zen, Azkoitirako 4000 ale eta

Azpeitirako beste 5000 inprimatuz. Parte hartutako ikastetxeetan 100 ale inguru utzi genituen.

		5. maila		6. maila	
		Gela	Ikasle	Gela	Ikasle
AZKOITIA	Xabier Munibe ikastola	2	45	2	44
	San Jose Floreaga ikastetxea	2	38	2	49
AZPEITIA	Karmelo Etxegarai ikastola	2	45	2	45
	Iraurgi ikastetxea	3	75	3	75
GUZTIRA		9	203	9	213

Baloraketa

Aurtengo esperientzia aintzindari gertatu da eta bide jorratuz asko ikasi dugu. Beraz hasierako momentutik oso jarrera geldoa adierazi zuten eskoletako bitartekariak prozesuaren martxan eragina izan duelarik. Egia esateko behin prozesu osoa garatu ondoren oso balorazio positiboa egin dute parte hartzaile guztiek, hasieran ikusitako lan eta zama dezente gutxiagotu delarik.

Artelatzen aldetik momentu guztietan animoak, erraztasunak eta aholkuak ematearen funtzioa bete dugu. Ildo honetan Trukutxuko irteerarako laguntza eskatu zigutenean oso gustura hartu genuen irteeraren ardura, non landa fitxa prestatzeaz gain berta jabearen harremanetan jarri ginen eta zeharkaldiaren gorabeherak prestatu genituen.

Prozesuan ez dira denak era berdinean murgildu, behar bada, hasieratik irakasleek motibazio zein ikuspegi ezberdinak azaldu zutelako. Nagusiki 6. mailako ikasleek hartu dute parte, dena den ikastetxe barruko hainbat ekintzetan 5. mailako talderen baten ekintzak ere kontuan hartu ditugu buletina diseinatzerakoan. Euskarria hau herritarrak informatzeko euskarria gertatu da eta ikastetxearen barruko ekintzetan egon izan bagina, gure ustez, askoz aberatsagoa gerta zitekeelakoan gaude. Hau da, gure ustez dezente hobetu daiteke, nahiz eta aurtengoan egindakoarekin denok oso pozik egon.

Denborari begira gure ustez hasierako gelsdotasunak eragina izan du eta hainbat kasuetan nahi baino gehiago luzatu da prozesua, datorren ikasturteari begira egutegia finkoagoa egongo delarik.

Bukatzeko, Artelatz lantaldearen ilusioa azpimarratu nahi genuke benetan egiten dugun lanean sinesten dugulako.

Tolosa, 2004 uztaila.